

EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN BALORAZIOA (2018-2022)

AIKIALDIA, KULTURA ETA KIROLA

<i>Amasa-Villabonako ESEP Planean 2018-2022 epealdirako proposatutako helburuak.</i>	<i>Udalak helburu horien inguruan egiten duen balorazioa.</i>
Euskarazko kultur eskaintza eta kontsumoa bultzatzeko ekimenak indartu	Udalak eskainitako eta antolatutako ekintza ia guztiak euskaraz izan dira. <i>Geuretik sortuak</i> programan parte hartu du Udalak.
Gaztelekuko zerbitzuaren hausnarketa egitean, euskararen erabilera sustatzeko neurriak planteatu eta plangintza bat egin	Euskara zerbitzuak elkarlana bideratu izan du gaztelekuko eta kale-hezitzaileekin, baina modu puntualean.
Herriko kultur eta kirol eragileekin sinatzen diren hitzarmenetan hizkuntza irizpideak txertatu, haiek betetzearen garrantziaz ohartarazi, eta jarraipena nola egin erabaki	Udalak onartuta ditu herriko kultur eta kirol eragileek dirulaguntza jasotzekotan, bete behar dituzten hizkuntza irizpideak. Jarraipen bideak, ordea, zehaztu behar ditu oraindik. Nola antolatu horien jarraipena?
Futbol elkartearen zuzendaritza kideen eta monitoreen sentsibilizazioa eta trebakuntza sustatu euskararen erabilera bultzatzeko	2018an Udalak kirol monitoreentzat <i>Hezitzaileek asko egin dezakete</i> ikastaroa antolatu zuen. 2019-2020an AEKren <i>Eusliderrak</i> izeneko tailerra futbol taldekoentzat. Azken urteetan UEMAREN begirale eta entrenatzaileei zuzendutako tailerra egin da.
Eskola kiroleko monitoreen sentsibilizazioa eta trebakuntza sustatu euskararen erabilera bultzatzeko	2018an Udalak eskola kiroleko monitoreentzat <i>Hezitzaileek asko egin dezakete</i> ikastaroa antolatu zuen. Azken urteetan UEMAREN begirale eta entrenatzaileei zuzendutako tailerrean parte hartu izan dute.
Udalak antolatzen dituen udalekuetan zein eragileek antolatutako udalekuetako begiraleen sentsibilizazioa eta trebakuntza sustatu euskararen erabilera bultzatzeko	Azken urteetan UEMAREN begirale eta entrenatzaileei zuzendutako tailerrean parte hartu izan dute.
Kiroldegiko zerbitzuan euskara gero eta nagusiago izan dadin neurriak hartu	Udalak ezarrita ditu hizkuntza irizpideak enpresarekin egindako kontratuan. Jarraipena nola egin, ordea, antolatu gabe dago.

EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANAREN BALORAZIOA (2018-2022)

AISIALDIA, KULTURA ETA KIROLA

Sare sozialetan euskarazko edukiak sustatu	Udalaren sare sozialetan euskaraz soilik zabalitzen dira edukiak.
Euskararen kultur eskaintza eta kontsumoa bultzatu	Udalak urtero banatzen die HHko eta LHko ikasle guztiei <i>Euskarazko Produktuen katalogoa</i> .
Gazte eta nerabeentzat euskarazko edukiak sustatu	Udalak urtero ordaintzen du DBHko ikastetxeentzat <i>Gaztezulo</i> aldizkariaren harpidetza.